

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun, bizi garen munduan kutsadura arazo larri batean sartuta dago. Ehungintza munduko kutsatzaileenetako bat bihurtu da. Industria honek, munduko edateko uraren kutsaduraren %20-aren inguru eragiten du. Gaur egun, arropa guztiak tindatze-prozesu batetik pasatzen dira, eta ez da soilik langileentzat arriskutsua, baizik eta, erabiltzen diren toxiko kantitate handiagatik, inguruetako ekosistemarentzako ere arriskutsua da. Industria horrek toxiko horietako asko uretara isurtzen ditu, eta tindu horiek ia guztiari eusten diotenez, ura oso kutsatuta eta arriskutsuan bihurtzen dute. Datu batzuek erakusten dute jantzi bakar bat egiteko ehunka litro behar direla, baita milaka ere, jantzi bakoitza sortzeko.

Beharrezkoak dira 10.000 litro ur kotoi kilo bat ekoizteko eta 387.000 milioi litro ehungintza prozesua aurrera eramateko. Izan ere, 2.200 litro ur erabiltzen dira jertse bakarria sortzeko, 4.400 litro kamiseta bakarrerako eta 4.000-5.500 litro artean traje bakarreko jakarako.

Hori ez ezik, ehungintzaren ezaugarria da lantegiak garapen-bidean dauden herrialdeetan jartzen direla produkzio-kostuak merkeagak izateko, eskulan merkeago bat erabiliz. Azken urteetan, ehungintza, munduko esklabotza-iturri ohikoenetako bat bihurtu da. Industria horretako langileek 14 orduetatik 16 orduetara egin behar dute lan egunean, eta 7 egunetatik aurrera astean. Hori aldatu egiten da jarduera gehien duten denboraldien arabera, orduan handitzen baitira zifra hauek. Langile horien soldatak ere ez dira oso ikaragarriak; izan ere, egoera hau aztertuz, 80 euro hilean ordaintzen dituzte, gutxi gora behera, hau da, 4 euro baino gutxiago egunean.

Ikerketen arabera, moda-industriak eragiten du karbono-isurketa guztien % 10, nazioarteko hegaldi guztiek eta itsas garraioak batera baino gehiago.

Gure aplikazioaren bidez ehungintza hobetu nahi dugu, pertsona batek urtean 1.100 euro gastatzen ditu batez beste arropetan eta 350 euro oinetakoetan. Jendeak zenbat eta arropa gehiago erosi, enpresek orduan eta gehiago ekoitzi behar dute, eta, horrela, ingurumen-kutsadura handiagoa, ustiapen handiagoa eta herritarren poltsikoak husten joatea.

Horrela, gure ideiak lagunduko lieke pertsonari hainbeste kostatu diren jantzi zahar horiek saltzen edo bizitza berri bat ematen. Zenbat eta arropa gehiago erabili, orduan eta gutxiago ekoitzi beharko dugu eta gutxiago gastatu. Aplikazioaren epe luzeko beste

onura bat da, pertsonak gutxiago erosten badute, jendeak arropa garestiagoak erosiko dituela, baina gehiago eutsiko diotela, kalitate hobea dutelako. Gaur egun, ehunka euro gastatzen ditugu 5 edo 25 euroko jantzietan, hilabete batzuk irauten dutenak, 50 euro gastatu beharrean nahi dugun denbora erabili ahal izango dugun praka batzuetan, gero berriro kustomizatu irudi berri bat emateko eta geroago egoera onean saltzeko.

Industria jasangarriagoa lortu nahi dugu, gutxiago baina kalitate handiagoz ekoizten dena, dirua jantzi iraunkorragoetan eta ez arropa gehiagotan hobeto gastatu ahal izateko, planetari kutsadura eta ustiapena nabarmen murriztuz.

Gure aplikazioaren bidez, gizarteari laguntza eta aurrerapena eman nahi dizkiogu.

Konponbide iraunkorra eskaintzen dugu, arazo hau hobetzen lagun dezakeena. Egutero publizitatearekin inbaditzen gaituzte, errukirik gabe, desioak behar bihurtzeko helburuarekin. Ondorioz dure etxeetan kontsumismoa izena duen fenomeno sortzen da. Honek, gizartean gauzak erosteko nahia sortzen du. Fenomeno horrek oso rol garrantzitsua du ehungintzan. Benetan behar duguna baino arropa gehiago kontsumitzen duzu, eta horrek ingurumenean eragin handia duten ondorioak dakartza. Zenbat eta gehiago ekoitzi, orduan eta baliabide gehiago erabiltzen dira, eta baliabide horiek, normalean, oso kutsagarriak izaten dira. Ura, energia elektrikoa eta erregaia bezalako zerbitzuak azpierzabiltzen dira, horien ordainketa-tarifa handituz. Beste plataforma batzuetan ez bezala, gure etika eta printzipioengatik bereizten gara. Webgune hau sortzeko arrazoia lehen aipatu dugun eta benetan kezkatzen gaituen arazoari gure harri-koskorra emateko izan da. Beste enpresa batzuk beren asmo bakarra gezurrezko ideiak saldu eta publizitatea egitea da, guk benetan pertsonari lagundu nahi diegu.

Batez ere, bezeroa produktu hori ordaintzeko prest egongo da, berritzailea baita; gaur egun, moda berria "Vintage" jantziak jantztea da. Estilo horrek aurreko urteetan edo hamarkadetan egin eta bizitako jantziak ditu, denborarekin balioa hartzen dutenak. Adibidez, Levi 's bakeroak, Barbour jakak, Stan Smith zapatilak eta beste hainbat jantzi. Jende askok armairuan ahaztuta dauden eta jada erabiltzen ez dituzten arropak kendu nahiko ditu, adibidez 80ko hamarkadako kanpaiak. Gaur egun, jantzi horiek mende honetako nerabeen arropa-nahia dira, eta arropa horiek aurkitzeko modurik onena web honen bidez egitea da.

Bestalde, bezeroa produktu hori ordaintzeko prest egotearen beste arrazoi bat da enpresa horrek lagundu egingo diela hain prezio altuak ordaindu ezin dituzten pertsonari, bigarren eskuko produktua baita, eta horrek esan nahi du bezeroa prest egongo dela produktua ordaintzeko, irisgarria baita. Pandemiaren ondorioz, arazo

ekonomiko bat egon da, non enpresek ekoizteari utzi dioten, jendeak lana galdu duen eta hainbat enpresak gero eta gehiago erosi ahal izan duen.